

Donostian ere alderdi sozialista garaile

Ezbairik gabe, hauteskunde bereziak izan dira martxoaren 14koak. IRUTXULOK Donostiako datuei erreparatu die; PSE-EEren garaipena nabarmena izan da..

Lehenik eta behin, parte-hartze datua da aipagarria. Hautestontzietara deituta zeuden 161.311 donostiarretatik 111.649 joan dira botoa ematera. Abstentzioa %26 izan da aurten eta duela lau urte %36,8 izan zen —orduan ezker abertzaleak abstentzioa eskatu zuen—.

Garailea PSE-EE izan da. Duela lau urte baino ia 8.000 boto gehiago lortu ditu. Eta bada udal hauteskundeetako 'Odon Elorza efektua' berrestera datorren datu bat: iazko udal hauteskundeetan baino ia 4.000 boto gutxiago lortu ditu oraingoa PSE-EEK. EAJk ere emaitza oso onak lortu

ditu, EAJren eta Earen arteko banaketatik lortutako onenak. Earen emaitzak, aldiz, ez dira oso onak izan. Baina, nabarmentzekoa da EAJren eta Earen botoak batuz gero, koaliziokideok gehiengo izango lukezela Donostian, inoiz baino boto gehiagorekin gainera.

IU-EBk gora egin du, eta 1996ko Espai-

niako hauteskundeetan lortutako mailara iritsi da ia.

Bergarako ekimenari dagokionez, 8.000 boto eskuratu ditu. Kanpaina egiteko izandako zailtasunak eta botoak balio gabetzat joko zirela jakina zela kontuan hartuta, emaitzak ontzat jo dituzte ekimeneko arduradunek.

BOTO BILAKAERA DONOSTIAN			
	2004ko Espainiako hauteskundeak	2000eko Espainiako hauteskundeak	2003ko Udal hauteskundeak
PSE-EE	29.560 (%26,6)	21.981 (% 22,8)	33.349 (% 32,6)
EAJ	25.108 (%22,6)	19.680 (% 20,4)	27.855 ⁽¹⁾ (% 27,2)
PP	22.877 (%20,6)	31.269 (% 32,4)	22.260 (% 21,8)
EA	10.285 (%9,2)	12.504 (% 12,9)	—
Bergarako ekimena	8.234 (%7,4)	—	10.120 ⁽²⁾ (% 9,9)
IU-EB	8.082 (%7,2)	4.668 (%4,8)	4.895 (% 4,7)
Aralar	4.495 (%4)	—	3.214 (% 3,1)

(1) Udal Hauteskundeetan EAJ EArekin batera aurkeztuzen koalizioan.

(2) Udal Hauteskundeetan Baga Boga plataforma aurkeztu zen eta legez kanpo utzi zuten.

Botoak auzoz auzo (*)

	BOTOAK	PSE-EE	EAJ	PP	EA	BERGARAKO ek.	EB-IU	ARALAR	BESTEAK
ALTZA	12.447	5.243	1.913	1.984	687	931	1.096	334	372
BIDEBIETA	4.193	1.431	746	834	265	325	319	136	130
ULIA	2.269	503	527	423	233	223	207	138	7
INTXAURRONDO	10.457	2.966	1.836	1.407	790	866	1.057	472	197
GROS	13.074	3.123	3.002	2.875	1.391	875	940	522	315
EGIA	8.808	2.496	1.905	1.547	787	1.049	737	430	199
LOIOLA	2.958	873	664	497	234	262	250	114	64
MARTUTENE	1.550	441	318	252	154	153	100	74	57
AMARA BERRI	16.630	4.423	3.729	4.203	1.503	682	1.068	567	455
AMARA ZAHARRA	4.378	1.085	995	921	419	339	330	182	26
AIETE	5.548	1.448	1.337	1.345	482	231	376	190	84
ERDIALDEA	7.596	1.303	2.016	2.480	760	300	295	213	42
PARTE ZAHARRA	3.926	541	1.170	527	578	541	241	254	119
ANTIGUA	9.115	1.911	2.475	1.922	958	658	551	450	40
IGELDO	621	53	138	103	83	155	33	37	19
ANORGA	1.457	200	433	112	247	248	74	115	5
IBAETA	6.916	1.515	1.910	1.440	699	396	470	314	33
GUZTIRA	111.649	29.560	25.108	22.877	10.285	8.234	8.082	4.495	2.164

(*)Bergarako ekimenak emandako datuak.